

2024-2028 Proiektu estrategikoa

Don Bosco 2028 birpentsatzen!

Aurkibidea

1. Xedea, ikuspegia, balioak eta kalitate-politika	3
1.1 Xedea	3
1.2 Ikuspegia	3
1.3 Balioak	3
1.4 Kalitate-politika	4
2. Lerro estrategikoak	6
3. Helburu estrategikoak	8
4. Jardun-lerroak	9
5. Metafora eta infografia	16
6. Eranskinak	17

1. Xedea, ikuspegia, balioak eta kalitate-politika

1.1 Xedea

Ikasleen garapen integrala da gure helburu nagusia. Elkarbizitzarako, eta gero eta aldakorrago den lan-mundurako prestakuntza, laguntza eta orientazioa eskaintzen dugu:

- Teknikoa, teknologikoa eta soziala.
- Eleanitza.
- Duala.
- Malgua. Ikasle profil ezberdinetara egokitua.

Gure xedea gauzatzeko, gizarte-eragile, enpresa eta ikastetxearen arteko lankidetzak aktiboa sustatzen dugu.

1.2 Ikuspegia

Bikaintasuna da gure horizontea. **Erreferentziazko ikastetxea** izan nahi dugu etxean eta nazioartean:

- Ikasleak eta haien behar bereziak oinarri dituenak.
- Hezkuntza-komunitatearen ongizatea lehenesten duena.
- Inklusiboa eta gizartearen aniztasunera egokitzen dena.
- Apaltasunez eta autokritikaz etengabe hobetu eta berritzen dena.
- Aukera parekidetasuna bermatu, eta Lanbide Heziketan genero-berdintasuna sustatzen duena.
- Teknologiaren aplikazio arduratsuan eredu dena.
- Euskalduna eta Euskararen biziberritzea ekarpena egiten diona.

1.3 Balioak

Nolakoa da Don Boscon lana egiteko modua?

- **Jasangarria:** ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren iraunkortasuna oinarritzko printzipioak dira gure ikastetxearen eguneroko bizitzan.
- **Berritzailea:** gure ikastetxean gizartearen etengabeko aldaketetara egokitzea bilatzen dugu, prozesuak etengabe hobetuz.
- **Pertsonen arteko harremanak oinarrian:** kalitatezko irakaskuntzaren garapena guztion onerako lankidetzan eta talde lanean diharduten pertsonen arteko konfiantzan, enpatian, elkertasunean eta errespetuan oinarritzen da.
- **Inplikaturia:** lanerako motibatuta eta inplikaturia gauden pertsonak osatzen dugu ikastetxea, hurbiltasuna, komunikatzeko gaitasuna ikuspuntu kritiko-eraikitzailea ditugunak.
- **Ekitatea eta aukera parekidetasuna helburu:** gure helburua da pertsonen arteko berdintasunaren alde lana egiten duen komunitate bat lortzea, gure ingurune anitza kontuan hartuta eta inklusioa eta gizarteratzea bilatuta.

1.4 Kalitate-politika

Kalitatea gure funtsezko konpromisoa da. Gure jardueraren alderdi guztietan islatzen da, eta konpromiso hauek hartzen ditugu:

- Kalitatezko prestakuntza integrala eskaintzea gure ikasleen gaitasun teknikoak, teknologikoak, sozialak, linguistikoak eta pertsonalak garatzeko, egungo eta etorkizuneko lan-munduen erronkei arrakastaz aurre egiteko, eta gizarte inklusibo eta bidezko batean herritar arduratsuak eta konprometituak izateko garapen iraunkorarekin eta bizikidetzarekin.
- Gure prozesu eta zerbitzu guztietan etengabeko hobekuntza sustatzea, ikasleen, enpresen, gizartearen eta ingurumenaren behar aldakorretara egokitzeko.
- Kalitatearen kultura sustatzea, ikastetxeko kide guztiak konprometituta egoteko ikasleen garapen integralarekin, gure balioen defentsarekin, euskararen indarberritzearekin, teknologiaren erabilera arduratsuekin, eta kanpo-eragileekin lankidetzan aritzearekin.
- Taldean lan egitea gure kalitate-helburuak lortzeko, eragile sozialekin, enpresekin eta ingurunearekin aktiboki lan eginez, eta gure balioak praktikan jarritz gure interakzio guztietan.

- Gure kalitate-politika modu eraginkorrean jakinaraztea langile, ikasle, enpresa, familia eta alderdi interesdun guztiei.
- Aldian behin kalitate-politika berrikustea, ziurtatzeko haren indarraldia, eraginkortasuna, eta bat egiten duela gure xede, ikuspegi eta balioekin.

Gure kalitate-helburuak lortzeko Kudeaketa Sistema Integratua erabiltzen dugu. Nazioarteko UNE-EN ISO 9001 estandarretan oinarritzen gara.

Kalitate-politika hori CIFP Don Bosco LHII ikastetxean egiten diren ekintza guztien erreferentzia esparrua da. Gure erantzukizuna da bermatzea modu eraginkorrean beteko dela, eta gure xedea eta ikuspegia lortzen lagunduko duela. Horretarako, erdigunean jarriko ditugu beti gure ikasleen garapen integrala, gure balioen defentsa, eta eragile sozialekin, enpresekin eta ingurunearekin lankidetzat aktiboa.

Gure kalitate-politikarekin konprometitzera gonbidatzen dugu CIFP Don Bosco LHII ikastetxeko hezkuntza-komunitatea (langile guztiak, ikasleak, familiak, enpresak eta gizarte-eragileak), elkarrekin eraikitzeko nazioartean eta etxean erreferentziazko izango den Lanbide Heziketako ikastetxe bikaina.

2. Lerro estrategikoak

A. Langileen ongizatea eta ahalduntzea

Pertsonen arteko harremanak indartzea eta talde-lana sustatzea. Berrikuntza, hobekuntza eta eraldaketa proiektuei autonomiaz eta erantzunkidetasunez erantzun ahal izateko irakasleen denboraren antolaketa eta kudeaketa hobetzea, eta administrazio-lanak eta irakaskuntza hobeto konbinatzea. Kudeaketa eraginkorra eta ikastetxe parte-hartzailea izatea. Horrez gain, erabakiguneetako parte hartzea erraztea eta garapen profesionalerako kultura errotzea.

B. Ikasleen ongizatea eta garapen integrala

Ikasleak gaitasun teknikoetan ez ezik, balioetan, genero-berdintasunean eta aniztasunean ere hezteak, profesional eta herritar arduratsu gisa prestatzeko. Irakaskuntza metodologia berrien inplementazioarekin jarraitzea, orain artekoa ikuspuntu kritiko eraikitzaile batetik ebaluatuta. Ikasleen iritzia bermatzea erabaki estrategikoetan. Eta ikasle profil guztiei Lanbide Heziketaren ateak zabaltzea: genero-, jatorri- eta gaitasun-aniztasunak aintzat hartuta eta horiei erantzuteko hezkuntza ingurune egokituak sortuta.

C. Ikastetxearen erantzukizun soziala

Erreferentziazko eskualdeko eragileekin, bereziki lan-munduarekin, eta nazioarteko beste ikasketa-zentro eta eragileekin lotura eta harremanak mantentzea, hobetzea eta sistematizatzea.

D. Euskararen biziberritzea

Ikasle eleanitzak hezteak eta euskararen biziberritzeari ekarpena egitea, langileen arteko hizkuntza-harremanak normalizatuz eta euskara lehenetsiz.

E. Teknologiaren erabilera arduratsua

Teknologiak, adimen artifizialak eta errealtate berriak (murgiltzaileak, birtualak, mistoak eta areagotuak) eskaintzen dituzten aukerak baliatzea. Era berean, teknologiaren erabilerak sortzen dituen gizarte-arazoen inguruan kontzientzia piztea, eta horiei aurre egiteko hezkuntza-komunitateko kideak trebatzea. Gailu mugikorak eta teknologia berriak erabiltzeko ikuspegi humano eta kritikoa errotzea.

F. Ikastetxearen erreferentzialtasuna eta bikaintasuna

Lanbide Heziketako ikastetxe erreferentea bihurtzea, talentua erakartzeko eta ziklo berrien eskaintza zabaltzeko. Ikastetxea prestatzea instalazio, ekipamendu eta

espazio berritzaile, duin eta eredugarriez.

3. Helburu estrategikoak

Kodea	Helburu estrategikoa
HE1	5.0 ikastetxean bilakatzea
HE2	Barne-ezagutzaren transferentzia bermatzea
HE3	Barne-komunikazioa eta barne-antolamendua hobetzea
HE4	Bigarren hezkuntzako ikastetxeekin elkarlana areagotzea
HE5	Enpresekin lankidetza sendotzea
HE6	Garapen jasagarria bultzatzea
HE7	Ikasleen behar bereziei erantzutea
HE8	Hezkuntza-eskaintza egokitzea eta zabaltzea
HE9	Hezkuntza- eta gizarte-eragileekin lankidetza sendotzea
HE10	Irakasleen gaitasunak areagotzea
HE11	Jarduera osagarriak eta eskolaz-kanpoko jarduerak indartzea
HE12	Kanpo-komunikazioa eta marketina hobetzea
HE13	Nazioarteko harremanak areagotzea
HE14	Azpiegitura eta instalazioak egokitzea eta eskuratzea
HE15	Ikasleen ikaskuntza esanguratsuan sakontzea

4. Jardun-lerroak

Kodea	Jardun-lerroak	Lerro estrategikoa	Helburu estrategikoa	Lanbide Heziketako 6. Planeko ardatz estrategikoak	Lanbide Heziketako 6. Planeko helburu orokorrak	GJH
JL01	D graduen egokitzapena burutzea	F	HE8	C F E	1 2 10 11	4 8
JL02	Ikasketa diseinu unibertsala ezartzea	B	HE7	E	2 10	3 4 10
JL03	Ekintza osagarrien eta eskolaz-kanpoko jardueren-planean txertatzea: teknologiaren arriskuak	A	HE10	E	10	4
JL04	Ekintza osagarrien eta eskolaz-kanpoko jardueren-planean txertatzea: lehiaketak eta sariak, ikasle-ohien hitzaldiak eta bizikidetza jarduerak.	B	HE11	E	2 3	3 4 5 10
JL05	Jarduera osagarrien eta eskolaz-kanpoko plana: enpresa&eragileekin&erakundeekin topaketak eta bisitak	B C	HE5 HE9 HE11	B C	10	4
JL06	Ekintza osagarrien eta eskolaz-kanpoko jardueren-planean txertatzea: euskaigintza	D	HE11	G		8

JL07	Ekintza osagarrien eta eskolaz-kanpoko jardueren-planean txertatzea: GKEen lana eta gizarte-kontzientzia	C	HE11	E	2 3 6	10
JL08	Grabaketa estudio, gela murgiltzaile eta interaktiboen erabilera erronketan txertatzea	F	HE14	C F E	7	9 4 17
JL09	24-28 prestakuntza-plana sortzea: Adimen artifizialaren erabilera	A E	HE10	E F	10 4	4
JL10	24-28 prestakuntza-plana sortzea: Dinamizazio-teknikak	A	HE10	E	10	4
JL11	24-28 prestakuntza-plana sortzea: Kontzentrazio teknikak	A	HE10	E	10	4
JL12	24-28 prestakuntza-plana sortzea: Langileen ongizate emozionala	A	HE10	E	10	4
JL13	24-28 prestakuntza-plana sortzea: Lidergoa, komunikazio-teknikak eta talde-lana	A	HE10	E	10	4
JL14	24-28 prestakuntza-plana sortzea: Sare sozialak, pribatutasuna, ziberjazarpena eta menpekotasuna	A E	HE10	E	10	4 17
JL15	24-28 prestakuntza-plana sortzea: Arazo psikosozialen kudeaketa	B	HE10	E	2 10 3	3 4 5 10
JL16	24-28 prestakuntza-plana sortzea: Hezkuntza premia berezien tratamendua	B	HE10	E	2 10	3 4

						10
JL17	24-28 prestakuntza-plana sortzea: Talentuaren kudeaketa-teknikak	B	HE10	E	11 10	4 10
JL18	Aktibo eta baliabideen lantaldea sortzea	A	HE3	E	7	4
JL19	Lan-poltsa lantaldea Enpresa harremanetarako lantaldean bilakatzea	C	HE3 HE5	E	6	8 9
JL20	Jantoki lantaldea sortzea	A	HE3	E		4
JL21	Elkar-zaintza lantaldea sortzea	A	HE3	E	9	4 3
JL22	Orientazio lantaldea sortzea	B	HE3 HE7	E	2	3 4
JL23	Tutoretza-plana sortzea	B	HE7	E	2	4 10
JL24	TKgune, Enpresa harremanak, eta Berrikuntza lantaldeen arteko elkarrekintza saioak planifikatzea	C	HE5	A B	6	9
JL25	Ikasleen harrera-plana eguneratzea	A B	HE3 HE7	E	2 10 3	3 4 5 10
JL26	Irakasleen harrera-plana eguneratzea	A	HE3	E	10	4

JL27	Funtzio, rol eta erantzukizunen mapa eguneratzea	A	HE2	E	10	4 5
JL28	Ezagutzaren transferentziarako protokoloa ezartzea	A	HE2			
JL29	Errelebo-plana sortzea	A	HE2	E	10	4
JL30	Big data aginte taula integrala sortzea	A		E F	4 8	4
JL31	HOBEA metodoa aplikatzea	A F	HE3 HE1	E B	1	3 4 17
JL32	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana sortzea	A F	HE6	E	3 9 10	4 5 10
JL33	EMAS ingurumen kudeaketa-sistema ezartzea	C F	HE6	D E	9 11	6 7 12 13 14 15
JL34	Komunikazio-plana sortzea	A C D E F	HE3 HE12	E A	7 8	4 17
JL35	Konfiantzaren kudeaketa-eredua ezartzea	A	HE1	E F	4	4

JL36	Lidergoa eta talde-lana neurtzeko Neoberri erremintaren erabilera sistematizatzea	A	HE1	E F	8 .	4
JL37	Netiketa arauak sortzea	A E	HE3	E.	4 8	4
JL38	Eraldaketa digital jasangarrirako heldutasun eredu aplikatzea	E F	HE1	A B C E F	4 7 8 11	3 4 5 8 9
JL39	Kudeaketa jasangarrirako gida aplikatzea	C F	HE6	D E	11 9	7 12 14 15 16 17
JL40	Bikain ziurtagiria eskuratzea	D F	HE3 HE12	F E	10	4
JL41	Euskararen dekalogo sortzea	D	HE3	E	3 11 10	5 3 16
JL42	Euskararen erabilera bermatzeko bilera-protokoloa ezartzea	D	HE3	B	8	
JL43	Hizkuntza-normalkuntza lantaldeko sitea garatzea	D	HE3	A	5	
JL44	Hizkuntza-politika eguneratzea	D	HE3		1	

JL45	Ikasleen parte hartzea sustatzea hizkuntza normalkuntza lantaldean	D	HE3		2	
JL46	dbSarietan <i>dbEnpresa</i> saria sortzea	C	HE5	E	6	2 8
JL47	Enpresa harremanen kudeaketarako baliabide partekatua sortzea	C	HE5	E	6	8
JL48	Enpresa klusterrekin, unibertsitateko ikerketa taldeekin, eta zentro teknologikoekin zubiak eraikitzea	C	HE5	B	6	9
JL49	Enpresei bideratzen zaizkien inkestak eguneratzea	C	HE5		6	8
JL50	Ikasle-oihei bideratzen zaizkien inkestak eguneratzea	C	HE5	E	10	8
JL51	Inguruko errealitatera egokitzen diren erronka-ideiak jasotzea enpresa eta erakundeetatik	C	HE5 HE9	E	1 2 6	4 8
JL52	Lan-poltsaren erabilera baldintzak eta irizpideak eguneratzea	C	HE5	B E	10 2 6	8
JL53	Praktikaldi duinaren dekalogoia sortzea	C	HE5	E	6	8
JL54	db STEAM estrategia sortzea	C	HE4	C	2	4
JL55	Gizarte-kontseiluaren partaidetza eguneratu, zabaldu eta gogoeta estrategikoa egiteko dinamika sortzea	C	HE9	E	6 5	11

JL56	Oarsoalde eskualdeko 4 udalen eta ikastetxearen arteko lankidetzaz hitzarmenak eguneratzea	C	HE9	H	2	8 11
JL57	AEK eta euskara-eragileekin lankidetzaz hitzarmenak sortzea	D	HE9		9 6	17
JL58	Bizarain institutuko espazioak berreskuratzea	F	HE14	C F E	7	9 4 17
JL59	C, D eta E kategorioak handitzea	F	HE8	C F E	1 2 11 10	4 8 9
JL60	Nazioarteko bisiten harrera-protokoloa sortzea	C	HE13	G	2	4
JL61	Nazioarteko harremanen kudeaketarako baliabide partekatua sortzea	C	HE13	H	2	8 11
JL62	Ethazi ereduak garatzea	B	HE15	B	1 2 6 8 10	4


5. Metafora eta infografia



CIPP Don Bosco LHII

2024-2028 PROIEKTU ESTRATEGIKOA

*Mendeetako hegaldiak
badiako begirada gordez,
mundua zelatatuz
nola aldatu den kolorez.
Nik ere nahiko nuke hegan egin
airera zabalduko hegoez;
ezinezkoa dela sinistu izan dut
lortzen saiatu ordez.
Baina behin kaio bat ikusi nuen
itsas azaletik oinez,
eta ezinezkorik ez dagoela ulertu nuen,
behin eta berririo saiatu beharra baino ez.*



XEDEA

Ikasleen garapen integrala da gure helburu nagusia. Elkarbizitzarako, eta gero eta aldakorrago den lan-mundurako prestakuntza, laguntza eta orientazioa eskaintzen dugu:

- Teknikoa, teknologikoa eta soziala.
- Eleanitza.
- Duala.
- Malgua. Ikasle profil ezberdinetara egokitua.

Gure xedea gauzatzeko, gizarte-eragile, enpresa eta ikastetxearen arteko lankidetzak aktiboa sustatzen dugu.



IKUSPEGIA

Bikaintasuna da gure horizontea. Erreferentziazko ikastetxea izan nahi dugu etxean eta nazioartean:

- Ikasleak eta haien behar bereziak oinarri dituen.
- Hezkuntza-komunitatearen ongizatea lehenesten duena.
- Inklusiboa eta gizartearen aniztasunera egokitzen dena.
- Apaltasunez eta autokritikaz etengabe hobetu eta berritzen dena.
- Aukera parekidetasuna bermatu, eta Lanbide Heziketan genero-berdintasuna sustatzen duena.
- Teknologiaren aplikazio arduratsuan eredu dena.
- Euskalduna eta Euskararen biziberritzea ekarpena egiten diona.

BALIOAK

Nolako da lan egiteko modua Don Boscon?

- Iraunkorra: Ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren iraunkortasuna oinarritzko printzipioak dira gure egunerokoan.
- Berritzailea: Etengabe hobetzen dugu gizartearen alaketetara egokitzen den kalitateko irakaskuntza eskaintzeko.
- Pertsonen arteko harremanak oinarrian: Talde-lana sustatzen duten pertsonen arteko konfidantza, enpatia, elkartasuna eta errespetua ezinbestekoak dira hezkuntza-komunitatearen ongizatea bermatzeko.
- Implikatua: motibazioz, hurbiltasunez eta ikuspuntu kritiko-konstruktiboz ekiten diogu lanari.
- Ekitate eta aukera parekidetasuna helburu: Pertsona guztien gizarteratzea eta aukera-berdintasuna bilatzen dugu. Aniztasuna da gure aberastasuna.

LERRO ESTRATEGIKOAK

A. Langileen ongizatea eta ahalduntzea	Pertsonen arteko harremanak indartzea eta talde-lana sustatzea. Berrikuntza, hobekuntza eta eraldaketa proiektuei autonomiaz eta erantzukidetasunez erantzun ahal izateko irakasleen denboraren antolaketa eta kudeaketa hobetzea, eta administrazio-lanak eta irakaskuntza hobeto konbinatzea. Kudeaketa eraginkorra eta ikastetxe parte-hartzailea izatea. Horrez gain, erabakiguneetako parte hartzea erraztea eta garapen profesionalerako kultura errotzea.
B. Ikasleen ongizatea eta garapen integrala	Ikasleak gaitasun teknikoetan ez ezik, balioetan, genero-berdintasunean eta aniztasunean ere hezteko, profesional eta herritar arduratsu gisa prestatzeko. Irakaskuntza metodologia berrien implementazioarekin jarraitzea, orain arteko ikuspuntu kritiko eraldatzaile batetik ebaluatuta. Ikasleen iritzia bermatzea erabaki estrategikoetan. Eta ikasle profil guztiei Lanbide Heziketaren atak zabaltzea: genero-, jatorri- eta gaitasun-aniztasunak aintzat hartuta eta horiei erantzuteko hezkuntza ingurune egokituak sortuta.
C. Ikastetxearen erantzukizun soziala	Erreferentziazko eskualdeko eragileekin, bereziki lan-munduekin, eta nazioarteko beste ikasketako zentro eta eragileekin lotura eta harremanak mantentzea, hobetzea eta sistematizatzea.
D. Euskararen biziberritzea	Ikasle eleanitzak hezteko eta euskararen biziberritzea ekarpena egitea, langileen arteko hizkuntza-harremanak normalizatuz eta euskara lehenetsiz.
E. Teknologiaren erabilera arduratsua	Teknologia, adimen artifizialak eta errealtate berriak (murgiltzaileak, birtuak, mistoak eta areagotutako) eskaintzen dituzten aukerak baliatzea. Era berean, teknologiaren erabilerak sortzen dituen gizarte-arazoaren inguruan kontzientzia piztea, eta horiei aurre egiteko hezkuntza-komunitateko lideak trebatzea. Gailu mugikorrek eta teknologia berriak erabiltzeko ikuspegi humano eta kritikoak errotzea.
F. Ikastetxearen erreferentzialtasuna eta bikaintasuna	Lanbide Heziketako ikastetxe erreferentzia bihurtzea, talentua erakartzeko eta ziklo berrien eskaintza zabaltzeko. Ikastetxea prestatzea instalazio, ekipamendu eta espazio berritzaile, duin eta eredu garriez.

HELBURU ESTRATEGIKOAK (HE)

HE1: 5.0 ikastetxean bilakatzea
HE2: Barne-eragilearen transferentzia bermatzea
HE3: Barne komunikazioa eta barne-antolamendua hobetzea
HE4: Bigarren hezkuntzako ikastetxeekin elkarlana areagotzea
HE5: Enpresekin lankidetzak sendotzea
HE6: Garapen iraunkorra bultzatzea
HE7: Ikasleen behar bereziei erantzutea
HE8: Hezkuntza-eskaintza egokitzea eta zabaltzea
HE9: Hezkuntza- eta gizarte-eragileekin lankidetzak sendotzea
HE10: Irakasleen gaitasunak areagotzea
HE11: Jarduera osagarriak eta eskolaz-kanpoko jarduerak indartzea
HE12: Kanpo-komunikazioa eta marketinga hobetzea
HE13: Nazioarteko harremanak areagotzea
HE14: Azpiegitura eta instalazioak egokitzea eta eskuratzea

6. Eranskinak

Lanbide Heziketako VI. Euskal Plana

- Ardatz estrategikoak
 - A. Teknologia, digitalizazioa eta sistema adimendunak.
 - B. Berrikuntza estrategikoa eta eraldaketa disruptiboa.
 - C. Adimenaren kudeaketa 5.0 Lanbide Heziketako ikastetxeetan.
 - D. Bioteknologia, berroneratzea eta ongizatea.
 - E. Giza garapena. Pertsonak, eraldaketaren protagonista.
 - F. 5.0 Lanbide Heziketako ikastetxe adimendunak.
 - G. Lanbide Heziketako Euskal sistema nazioartekotzea.
- Helburu orokorrak
 1. Lanbide Heziketako Euskal Sistemaren eraldaketa berri bat bultzatzea, eredu berri aurreratu eta disruptibo baten bidez, 4. Industria Iraultzaren aurrerapenak eta garapenak planteatzen dituen erronkei erantzun ahal izateko.
 2. Lanbide Heziketa ikasten duten pertsonen gaitasunak indartzea, kualifikazio-maila handia lor dezaten eta gure produkzio sareak behar dituen profesional talentudunak izan daitezen.
 3. Genero-berdintasuna sustatzea lanbide-heziketako lanbide-arloetan sartzen diren ikasleen artean.
 4. Eraldaketa digitala sustatzea eta zabaltzea Lanbide Heziketako sistema osoan.
 5. Lanbide Heziketako ikastetxeen lankidetza-sareak indartzea, sare adimendunen nodoak ezarriz.
 6. Lanbide Heziketako ikastetxeen eta enpresen arteko lankidetza sustatzea, sareko lana erraztuz, prestakuntza malgua garatuz, berrikuntza eta adimen aplikatua bultzatuz, eta eraldaketa digitalerantz aurrera eginez.

7. Azpiegituren egokitzapena eta modernizazioa erraztea, bai eta Lanbide Heziketako ikastetxeen antolaketa ere, 5.0 erakunde adimendun bihurtzeko, azkarrak izateko eta behar diren erreakzionatzeko, aurrea hartzeko eta hausteko gaitasunak bermatzeko.
8. Teknologia digitalen erabilera arduratsua sustatzea, egon daitezkeen arrakalak saihesteko eta gizarte-kohesioa indartzeko.
9. Garapen jasangarria bultzatzea, Basque Country 2030 Agendaren ildoari jarraikiz.
10. Prestakuntza profesional inklusiboa eta pertsonen beharretara egokitua bermatzea, garapen pertsonal eta profesional ona izateko behar den lanbide-kualifikazioa lortzeko.
11. Pertsonen plan honetan aipatzen den trantsizio hirukoitzari (trantsizio teknologiko-digitala, trantsizio energetiko-klamatikoa eta trantsizio sanitario-soziala) erantzun ahal izateko beharrezkoak diren gaitasun eta kualifikazio profesionalak ezartzea eta sustatzea.

Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)





***...eta ezinezkorik ez dagoela ulertu nuen,
behin eta berriro saiatu beharra baino ez!***